	ESP. KODEA CÓD. EXP.	2026ESEP0001

ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	**BOLSA DE ESPEDIENTES AREA DE EUSKARA** **EUSKARA SAILA: ESPEDIENTE POLTSA**
TITULARRA TITULAR	BEASAINGO UDALA
TOKIA LUGAR	BEASAIN

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO UDALEKU ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA CONTRATAR LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO: COLONIAS DE VERANO PARA EL FOMENTO DEL USO DEL EUSKERA.

1.- XEDEA

Baldintza teknikoen agiri honen helburua Lekarozko “Valle de Baztan” gazte aterpetxean 2026ko uztailaren 1tik 10era egingo diren euskararen erabilera sustatzeko udaleku zerbitzua kontratatzea da.

1.- OBJETO

El objeto de este pliego de condiciones técnicas es la contratación de la prestación del servicio: colonias de verano para el fomento del uso del Euskera en el Albergue juvenil “Valle de Baztan” de Lekaroz del 1 al 10 de julio de 2026.

2.- HELBURUAK

- Parte-hartzaileen euskara gaitasuna hobetu eta erabilera sustatzea.
- Haur eta gaztetxoen garapena sustatuko duten jarduerak egitea.
- Balio hauekin lotutako ohiturak eta portaerak sustatu: errespetua, elkarbizitza, lankidetza, erantzukizuna, autonomia, elkartasuna, aniztasuna eta justizia soziala.
-

2.- OBJETIVOS

- Mejorar la competencia y fomentar el uso del euskera de los participantes.
- Realización de actividades que promuevan el desarrollo de la infancia y la adolescencia.
- Fomentar hábitos y comportamientos relacionados con el respeto, la convivencia, la cooperación, la responsabilidad, la autonomía, la solidaridad, la diversidad y la justicia social.

3.- HARTZAILEAK

9 eta 13 urte bitarteko haur eta gaztetxoak, Beasainen erroldatutakoak edo Beasaingo ikastetxe batean ikasten

3.- DESTINATARIOS

Menores y adolescentes de entre 9 y 13 años, empadronados en Beasain o que

dutenak.
Halere, matrikulazio epea amaitu ondoren plaza hutsak geratuko balira, bi baldintzak betetzen ez dituztenek ere parte hartu ahal izango dute eta horretarako kontuan izango da izena emateko hurrenkera.

Beasaingo udalak 50 plaza eskainiko ditu.

estudian en un colegio de Beasain.

No obstante, si una vez finalizado el plazo de matriculación quedaran plazas vacantes, podrán participar quienes no cumplan los dos requisitos anteriores. A estos efectos, se tendrá en cuenta el orden de inscripción.

El Ayuntamiento de Beasain ofertará 50 plazas.

4.- EDUKIA

Euskararen erabilera sustatu eta bermatzea da helburu nagusia. Ondorioz udalekuetako jarduera guztiak erabat euskaraz garatuko dira eta horretarako beharrezkoak diren baldintza guztiak bermatuko dira: begirale euskaldunak, euskarazko materiala, erabilera sustatzeko planifikazio lana,…

- Zerbitzu hau euskaraz eta euskal kulturan oinarrituta eskainiko da.
- Kontratistak parte-hartzaileen hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta estrategiak garatuko ditu zerbitzu jasotzaileen euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko, euskararen aldeko jarrerak bultzatzeko eta euskal kultura ezagutzera emateko.

4.- CONTENIDO

El objetivo principal es promover y garantizar el uso del euskera. En consecuencia, todas las actividades de las colonias se desarrollarán íntegramente en euskera con las condiciones necesarias para ello: monitores euskaldunes, material en euskera, trabajo de planificación para fomentar su uso.

- Este servicio se ofrecerá en euskera y en base a la cultura vasca.
- El contratista, teniendo en cuenta la competencia lingüística de quienes participan en las colonias, desarrollará estrategias para fomentar el conocimiento y uso del Euskara y para impulsar actitudes a favor del euskera y dar a conocer la cultura vasca.

5.- KONTRATISTAREN BETEBEHAR OROKORRAK

- Zerbitzuan eta garatzen diren ekintzetan haur eta nerabeen aukera berdintasuna bermatzea.
- Aterpetxearen kostu osoa (ostatua eta otorduak), titularrari ordaintzea udalekuak amaitu ondoren, aterpetxeko titularrak kontratistari dagokion faktura igorri ondoren.
- Eskainitako zerbitzua emateko nahikoa langile kontratatzea hurrengo

5.- OBLIGACIONES GENERALES DE LA CONTRATISTA

- Garantizar la igualdad de oportunidades de menores y adolescentes en el servicio y en las actividades que se desarrollen.
- Abonar el coste total del albergue (alojamiento y comidas), a su titular una vez finalizadas las colonias de verano, previa emisión de la correspondiente factura por parte del titular del albergue a la contratista.
- Contratar personal suficiente para el desarrollo del servicio ofertado, de

artikuluan adierazitakoaren arabera.	conformidad con lo señalado en el artículo siguiente.
- Helburua betetzeko euskarri eta programa informatikoak izatea.	- Disponer de soportes y programas informáticos, para el fin previsto.
- Udalekuak hasi aurretik, parte-hartzaileen gurasoekin edo legezko tutoreekin informazio bilera egitea.	- Realizar una reunión informativa con los progenitores o tutores legales antes del comienzo de las colonias.
- Udalekuak hasten direnetik amaitzen diren arte telefono-zenbaki bat eta helbide elektroniko bat martxan izatea, kontratistak koordinatzaile izendatutako pertsonarekin harremanetan jartzeko.	- Mantener en funcionamiento un número de teléfono y una dirección de correo electrónico desde el comienzo de los udalekus hasta su finalización, como forma de contacto con la persona designada como coordinadora por parte de la contratista.
- Zerbitzua egikaritzean gertatzen den edozein gorabehera Udalari jakinaraztea.	- Comunicar al Ayuntamiento cualquier incidencia que se produzca en la ejecución del servicio.
- Kontratuaren xedeak eskatzen dituen eginkizunak eta zereginak betetzearen ondorioz sor daitezkeen lekualdatze eta garraio gastu guztiak kontratistaren kontura izango dira.	- Todos los desplazamientos y gastos que puedan generarse como consecuencia de la ejecución de las funciones y tareas que requiere el objeto del contrato, serán por cuenta de la contratista.
- Parte-hartzaileek aterpetxeko instalazioak behar bezala erabiltzen dituztela eta une oro langileekin jokabide arduratsua dutela zaintzea.	- Velar para que los participantes efectúen un uso adecuado de las instalaciones del albergue y tengan en todo momento un comportamiento diligente con su personal.
- Zerbitzua gauzatzearen ondorioz sortzen diren kalte eta galera pertsonal eta materialei erantzutea, aterpetxean sortu daitezkeen kalteak barne Ondorio horietarako, kontratistak erantzukizun zibileko poliza bat sinatu beharko du, karatularen 20. atalean zehaztutako zenbatekoarekin.	- Responder de los daños y perjuicios personales y materiales que se causen como consecuencia de la ejecución del servicio, incluidos los daños que pudieran ocasionarse en el albergue. - A estos efectos la contratista deberá suscribir una póliza de responsabilidad civil por el importe indicado en el apartado en el aparatado 20 de la carátula.
- Beasaingo Udalari memoria entregatzea, honako alderdi hauek jasoko dituena: • Parte-hartzaile kopurua eta osatutako taldeak • Eguneroko jarduera egitarua eta jardueren ebaluazioa. • Euskararen erabilera sustatzeko jarduera motak. • Egindako egokitzapenak.	- Entregar una Memoria al Ayuntamiento de Beasain, que contenga los siguientes aspectos: • Número de participantes y grupos formados. • Programa de actividades diarias y evaluación de actividades. • Tipos de actividades de fomento del uso del euskera. • Adaptaciones realizadas.

- Erabiltzaileen eta gurasoen asebetetze maila.
- Hezitzaileek egindako balorazioen ondorio nagusiak.
- Aterpetxeak eskainitako ostatu eta mantenu-zerbitzua, kontratistari igorritako faktura barne.

- Grado de satisfacción de usuarios y familias.
- Principales conclusiones de las valoraciones realizadas por monitores/as.
- Servicio de alojamiento y manutención ofrecido por el albergue, incluyendo factura girada a la contratista.

- Memoria 2026ko uztailaren 20a baino lehen entregatu beharko da, eta nahitaezkoa izango da egin beharreko azken ordainketa egiteko (ikus Ezaugarrien Taulako 18. paragrafoa).

- La Memoria deberá entregarse antes del 20 de julio de 2026 y será preceptiva para el abono del ultimo pago a realizar (ver apartado 18 del Cuadro de Características).

6.- ENPRESA KONTRATISTAK JARRI BEHARREKO GIZA BALIABIDEAK

Kontratistak, parte-hartzaileei zerbitzua emateko, koordinatzaile bat izan beharko du, familiekin eta udalarekin hitz egiteaz eta koordinatzeaz arduratuko dena. Eta, gainera, honako langile hauek kontratatu beharko ditu: Zuzendaria + begiraleak

10 parte-hartzaile baino gutxiago badira, taldea zuzendari batek eta begirale batek osatuko dute.

10 parte-hartzailetik aurrera, monitore bakoitzeko haurren gehieneko ratioa 10ekoa izango da.

Begiraleak kontratatzerakoan gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izan dadin saiakera egingo da.

Udalak eskatuz gero, Eusko Jaurlaritzak luzatzen duen aisialdiko begirale titulua lortzeko praktikaldia egin behar duten pertsonei aukera emango die udaleku zerbitzuan parte hartzeko. Horiek ez dute talde baten ardura izango.

Esleipena egin ondoren eta kontratua formalizatu aurretik, kontratistak Beasaingo Udalari jakinarazi beharko dio

6.- RECURSOS HUMANOS ADSCRITOS AL SERVICIO POR LA CONTRISTA

La contratista para prestar el servicio a los participantes deberá contar con un/a coordinador/a que se encargue de la interlocución y coordinación con las familias y el Ayuntamiento. Y además, deberá contratar el siguiente personal: Director/ra + monitoras/es.

En el caso de que sean menos de 10 participantes el equipo estará compuesto por un/a director/ra y un/a monitor/ra.

A partir de 10 participantes el ratio máximo de niños por monitor será de 10.

Al contratar los/las monitoras/es, se intentará que exista una presencia equilibrada de mujeres y hombres.

A petición del Ayuntamiento, la contratista dará oportunidad para tomar parte en el servicio de udalekus a quienes precisen de un periodo de prácticas para obtener el título de monitor/a de tiempo libre que expide el Gobierno Vasco, sin que puedan hacerse cargo de ningún grupo.

Tras la adjudicación y antes de formalizar el contrato, la contratista deberá comunicar al Ayuntamiento de Beasain, la

kontratua gauzatzen parte hartuko duten langileen zerrenda eta Udalarekin koordinatzaile gisa jardungo duenarena.

relación nominal del personal adscrito a la ejecución del contrato y la persona que actuará como coordinador/ra con el Ayuntamiento.

Kontratua formalizatu ondoren edo gauzatzen ari den bitartean, pertsona horietan aldaketaren bat gertatzen bada, horien ordez baldintza-agirietan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten beste batzuk jarri beharko dira, Beasaingo Udalari horren berri eman ondoren. Komunikazioarekin batera, kontratatutako langileen lanbide-profilaren frogagiriak aurkeztuko dira.

Si tras la formalización del contrato, o durante su ejecución, se produce alguna variación en las personas indicadas, deberán sustituirlas por otras que reúnan los requisitos exigidos en los pliegos, previa comunicación al Ayuntamiento de Beasain. A dicha comunicación se acompañará justificación documental del perfil profesional del personal contratado.

Zerbitzuari atxikitako langileek (zuzendaria, begiraleak eta koordinatzailea) C1 gaitasun-maila izango dute euskaraz edo Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko baliokidea.

El personal adscrito al servicio (director/a, monitores/as y coordinador/a) tendrá el nivel de competencia C1 en Euskera o equivalente del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

7.- UDALAREN BETEBEHARRAK

- Udalekuen publizitatea egitea
- Izena emateko epea irekitzea eta tasak kobratzea.
- Kontratistari inskribatutako pertsonen kopurua eta adina jakinaraztea.
- Kontratistari kontratuaren prezioa ordaintzea, hau da, eskainitako zerbitzuaren kostua gehi aterpetxearen kostua (Udalak aldez aurretik erreserbatutakoa), kontratistak aterpetxearen titularrari ordain diezaion.

7.- OBLIGACIONES DEL AYUNTAMIENTO

- Publicitar el servicio de colonias.
- Apertura del plazo de inscripción y cobro de tasas.
- Comunicar a la contratista el número de personas inscritas y su edad.
- Abonar a la contratista el precio del contrato que incluye el coste del servicio ofertado más el coste del albergue (previamente reservado por el Ayuntamiento), para que a su vez la contratista lo abone al titular del albergue.

Plegu hau 2026ko martxoaren 16ko Alkatearen Ebazpen bidez onartua izan da.

Este pliego ha sido aprobado mediante Resolución de Alcaldía de 16 de marzo de 2026.